



Unai Altuna Etxeberria (*)

Zeelanda Berria, gustu guztietarako ibilbideak aukeran

ZEELANDA Berria entzutean, batzuei burura lehenik datorrena kiwi hitza da, guk fruituarekin lotzen duguna. Bertan, ordea, kiwiak esanahi askoz zabalagoa du. Alde batetik, haien sinbolo nazionala den hegalk gabeko hegaziaren izena da kiwia eta, bestetik, nongoak diren galdetzen diezunean, euren burua izendatzeko kiwiak direla esango dute eta ez zeelandaberritarrek edo antzekoren bat. Beraz, fruitua nahi izanez gero, kiwi-fruitua nahi duzula argitu behar da, bestela ez dago elkar ulertzerik!

Beste batzuei, aldiz, irla exotikoa, menditsua eta euritsua etorriko zaie burura Zeelanda Berria aipatzean. Eta hala da, herrialde menditsua da, euri asko egiten du eta exotikoa izateko baditu arrazoiak. Izan ere, irla multzo honek gertuen duen lurraldea Australia da eta bi mila kilometro baino urrunago aurkitzen da. Isolatuta dago beraz Zeelanda Berria eta, horren ondorioz, ekosistema bakar, berezi eta hauskorra garatu du mendeetan zehar.

Hauskortasun horren jakitun da, oro har, bertako gizartea. Kontziente dira zaindu beharreko altxor natural batean bizi direla eta bereziki garatua dute natura eta ekologiarekiko sentiberatasuna. Kiwiek asko errespetatzen dute natura, baita gozatu ere: ahal dutenean, haur, gazte eta zahar, motxila bizkarrean hartuta, mendira irtengo dira familia osoak. Eta, tokikoekin batera, mundu zabaletik iritsitako bidaiariak, mendi eder hauek ezagutzeko irrikatan.

Famatuak dira mundu osoan zehar bertako mendi-ibilaldiak, paisaien edertasuna eta aldakortasuna. Giza dentsitate txikiko lurraldea izanik, erabat basati mantentzen den eremu ugari dago eta horietan murgiltzeko aukera ezberdinak topa daitezke, mota guztietako mendizaleen neurriko ibilbideak. Batzuetan, bakar-bakarrik igaro dezakezu aste osoa eta, besteetan, ezingo zara ibilaldi batera sartu, hurrengo bi hilabeteetako erreserbak beteta daudelako. Gurutzatu behar duzun ibai bakoitzean zintzilikaturiko zubi eroso bat aurki dezakezu, edo ibar batetik gora ia gerrirainoko erreka behin eta berriz gurutzatu beharra izan. Aterpetxe bikain eta eroso batean, afalostean tertulia internazionala eduki dezakezu sutondoan, edo glaziar baten

■ *Zaila da sinistea hau itsasoa dela...*

Nueva Zelanda, recorridos para todos los gustos

UNAI Altuna nos narra en este artículo las experiencias vividas en Nueva Zelanda y más en concreto sus andanzas en los Parque Nacionales de Mt Aspirin y Fiorland así como en el fiordo de Milford Sound. Alguno de los recorridos realizados está catalogado como Great Walk (existen nueve), lo cual ha originado la masificación del entorno que ha tenido que ser regulado de una manera muy estricta, como es el caso de uno ellos llamado Routeburn Track. Además de los recorridos, Unai nos describe a su manera ciertos aspectos característicos de Nueva Zelanda como son el significado de la palabra kiwi, qué significa la teoría llamada Aotearo, la compañía de la mosca sandfly...

(*) Unai Altuna Etxeberria (Lasarte-Oria, 1981). Bidaiatzea eta mendia ditu gustuko, erraz uztar daitezkeen bi afizio. Ahal duen oro motxila bizkarrean edo alforjak bizikletan hartuta abiatzen da, etxe inguruko txokoetatik hasi eta mundu zabalera.



MAPA MONDIAK

ZEELANDA BERRIA

Wellington

magalean kanpina jarrita loro zalapartari baten konpainia bakarrarekin gaua pasa. Ibilbide amaieran garraio konpainia mordoan zain eduki dezakezu, edo hegazkin bati deitu beharra izan zure bila etor daitezten.

Batetik, ekosistemaren babesa eta, bestetik, mendira abiatzen den jende piloak sortutako arrastoaren artean oreka aurkitu nahian, mantentze departamendu bat dauka martxan gobernuak, besteak beste, informazioa, sustapena, erreserbak eta ibilbideen mantenua koordinatzen dituena. Aipatutako zerbitzu horiek eskuragarri daude herrialde osoan zehar banaturiko zentroetan, baita interneten dutenorrialdean ere(*). Bulegoko lanaz gain, bideak

(*) <http://www.doc.govt.nz>

atontzen eta mantentzen ere lan eskerga egiten du departamenduak, ibilbideak balizatzuz, aterpetxeak txukun mantenduz eta abar.

Antolatuturik dauzkaten ehunka ibilbideen artean badago aparteko klub moduko bat, lurralde osoko bederatziribide "onenek" osatzen dutena, *Great Walks* edo "ibilbide mundialak" deiturikoak. Marketin kutsua duen sailkapen honek baditu ondorioak, noski, eta jende andana erakartzen du. Horrek sor ditzakeen arazoan aurrean, erregulazio zorrotzak daude ezarrita bide hauetan. Adibidez, aterpetxeetako oheen eta kanpalekueetako plazen arabera, jende kopuru mugatua sar daiteke ibilbidean. Gainera, egun konkretuetan plaza erreserbatuturik, normalean baino gehiago ordaindurik eta, kasu batzuetan, norabide bakarrean egin daiteke bidea. Lehen aipaturiko orekaren bila burokrazia ere iritsi da mendira...

Luzerako joko luke eztabaidak; baina, aurretik aipatu bezala, aukera zabala dago. Teorian ederrenak direnak erregulatuturik dauden arren, erabat libre ibil zaitzke beste edozein ibilbidetatik, eta bakoitzak erabaki dezala zein den berarentzat ibilbide mundiala, ez gida liburu edo turismo bulego batek. Artikulu honetan azalduetako ibilbidea hiru zatitan banatuta dago, aurrera goazen heinean gizakiaren esku-hartzea handitzen doalarik.

■ Gure asmoak

Bakoitza bere kasa bi hilabete pasatxo ibili ondoren, bi lagun lasartear batu gara mendiz inguraturiko *Queenstown* hirixkan, mendi eta abenturaren irletako zentro turistikoan. Laku eder baten alboan hazitako hiri txiki honetan denetik aurki daiteke: festa, mendia, mota guztietako abentura kirolak eskaintzen dituzten ehunka agentzia... Guri ederki etorri zaigu eskaintza zabal hau, mendirako ekarri ez ditugun kanpin, gas, lo-zaku eta nahi izan dugun guztia alokatu ahal izan baitugu arazorik gabe.

Lehen hiru egunetan *Mt Aspirin* Parke Nazionalean zehar bi ibilbide konbinatuz emateko asmoa dugu. Esan digutenaren arabera, jende gutxi ibiltzen da bide hauetan garai hauetan eta kanpatzea librea da nahi den lekuan. Gure gustuko estiloa: kanpina, gasa eta gure airera ibiltzeko aukera.

■ *Mt Aspirin* ilunabarrean



Hurrengo bi egunetan, *Fiordland* Parke Nazionalaren mugetan, *Routeburn Great Walk*-ari eutsiko diogu. Aipatu moduan, ibilbide famatu honetan erregulatutako dago sarrera bakoitza eta jende asko eta sorpresa gutxi aurkituko ditugulakoan gaude, baina ikusiko dugu ea, benetan, besteen gainetik dagoen.

Ibilbide hau bukatzean, *Milford Sound*-era doan bidera irten, garraio motaren bat lortu eta fiordoetara iristeko asmoa dugu. Leku magiko hau turismo masiborako prestatua omen dago. Bertako argazkia da Zeelanda Berriko ezagunenarikoa, eta ehunka bisitari iristen da bertara egunero, autoz zein autobusez.

Martxoaren amaieran gaude, udazkena hemen, eta turismo-denboraldi altua ez bada ere, *Great Walk* bat aukeratu izanak eman digu lehen buruhauste txikia: *Routeburn*-en kanpatzeko erreserba egin beharra dugu abiatu baino lehen, eta hautaturiko egunean bakarrik kanpa dezakegu. Hemendik dabilten bi nafarrek esan digutenez, ibilbideak egiteko estimatutako egun kopurua ia erdiraino jaitsi zuten beraiek. Edozein fidatzen da, ordea, astakirten hauetaz. Gainera, hemen eguraldi kontuetan, Euskal Herrian bezala, bost egun on segidan harrapatzea zorte handia edukitzea da. Azkenean, zirt edo zart, nafarren erritorea joango garela eta eguraldi ona egingo duela aurreikusita, sei egun beranduagorako erreserbatu dugu kanpin plaza. Alea jacta est.

■ 1. Zatia: Cascade-Saddle / Rees-Dart. Mendia lasaitasunean gozatzeko ibilaldi mundiala

Igande goiza da. Atzo arratsaldean *Queenstown*-dik atera eta pare bat ordu autobusean egin ostean, *Wanaka*-n gaude. Gaua kanpin batean igaro ondoren, goizean-goiz jaiki eta laino beltzen mehatxuari kasurik egin gabe, behatz lodia luzatu dugu ibilbiderako hasierara dauzkagun 51 km-ak egiteko asmoz. Turismo konpainian esandakoaren arabera, autobusa ere eskuragarri dugu, baina irla hauetan aurretik izandako bide-bazterreko esperientzien arrakasta ikusita, eskuzabaltasunaren menpe jarri gara berriz ere.

Ordu laurden eskas igarota piztu zaizkio auto bati argi gorriak gu ikustean: "To the Aspiring carpark?" "Yes, come on!"

Hor goaz, bada, gure lagun eskoziar berriarekin kontu kontari. Guk berari erdia ulertzen diogu, berak guri gutxiago agian. Azentu arazoa, noski, baina komunikatu egin gara. Bera egun pasa doa mendira.

Paisaia ederrak ikusiz, ibar batetik gorantz, iritsi gara ibilbide hasierako auto aparkaleku txikira. Hiru eguneko zama bizkarrean abiatu gara bidean gora. Lehenengo aldapekin batera, eguzkia hasi da azaltzen laino artetik, gorputza ederki berotuz. Ibarrean aurrera, bide lasai eta errazetik joanda, ordu pare batean iritsi gara *Mt Aspiring* aterpetxera. Deskantsu txiki bat eta basora sartu bezain pronto hasi da aldapa: 1000 metroko desnibela aldats gogorrean. Eskuak sustrai eta adarren bila dabilta, bizkarreko zama atzeraka tiratzen du eta. Aldapa amaieran, basoko iluntasuna amaitu eta begietako mina: eta ez argitasunak eragindakoa, mundiala da paisaia eta!

Azken aldapak gogotsu egin ditugu, zeru urdina nagusi eta, pausoz pauso, mendi, glaziar eta ibar berriak agertzen doaz. 1830 metrora *Pylon* lepoa igaro ondoren, zertxobait beherantz egin eta lotarako lekuaren bila hasi gara. Azkar aurkitu dugu lakutxo bat eta haren ondoan jarri gara, *Mt Aspiring*-en begiradapean. Ilunabar ederra gozatuz afaldu dugu eta zakura, hotz baitago kanpoan egoteko: 0° C-tik jaitziko da gauean. Janari guztia ongi itxi dugu plastikoetan, gure lagun berria den loro lotsagabe batek usaindu egin baitu. Ezer aurkitu ez duenean kexaka hasi zaigu bolumen ederrean. Isilduko al da kirten hau lo gozo egin dezagun? Bihar goizean eguna argitzen ikusi nahi dugu. Ea parean dugun glaziar mundialean ze kolore konbinazio agertzen diren...

Goizean goiz, baina, kanpinetik burua atera eta behelainoa! Akabo gure egunsenti magikoa... Zortzi eta erdiak arte zakuan goxo-goxo egon gara, gero damutuko dugun lasaitasunean. Azkenean, lainoak altxatu gabe abiatu gara, gainean gertu dugun glaziarra ikusi ezinik. Pixkanaka beherantz goazen heinean, ordea, lainoa altxatzen hasi da eta glaziarraren edertasunaz gozatzeko aukera eman digu. Altura galtzen pasa dugu goiza, paisaia ikusgarrietan zehar.

■ Behe-laino artean hasi da agertzen glaziarra





■ *Dart bailaran beheara*

Arratsaldeko lehen orduan, *Dart* aterpetxera iritsi gara. Hemen *Rees* ibarretik datorren ibilbidearekin bat egin dugu. Hemendik aurrera jende gehiago topatuko dugu. Aterpetxean tomate entsalada eder bat jan eta, pilak kargatu ostean, aurrera egitea erabaki dugu. Sei-zortzi ordu markatzen ditu hurrengo aterpetxera, baina kanpinarekin goazenez, presiorik gabe atera gara; jada nekatu xamar gaude. Arratsaldea behe ibarretatik pixkanaka jaisten jarraitu dugu eta zuhaitz artean sartu gara freskotasuna eskertu dugularik. Baina baso trinko hauetan kanpalekurik muntatzerik ez eta, azkenean, bost ordutan gelditu ere egin gabe, ilunpetan iritsi gara aterpetxera, pasatu xamar. Azkar afaldu eta lotara.

Hurrengo goizean, goiz altxa eta eguna argitzerako martxan jarri gara. Aurreko egunekoari gorputzak ez dio buelta eman, eta gehiegi gozatu gabe egin ditugu geratzen zaizkigun 16 km ederrak. Bidean, bertako bikote heldu batek emozioz gainezka inguruko zuhaitzetan dauden txori horiak seinalatu dizkigute, oso bereziak omen dira eta zailak bistartzeko. Guri ez digute inpresio berezirik egin, baina hona hemen kiwien naturarekiko maitasuna adierazten duen beste adibide bat; ezin kabiturik daude, leku honetan inoiz ez omen baitituzte ikusi.

Azkenean iritsi gara, eguerdian, ibilbide bukaerako aparkalekura. Behatza luzatzeko asmotan gatoz, baina ez da autorik mugitzen. Gu, aldiz, ezin geldirik egon: gelditu orduko, *Sandfly* madarikatuak tropelean datoz gugana intentzio gaiztoekin. Horregatik, bero ederra egin arren, gu arropa luzea kendu ezinik egon gara. Eskerrak handik bi ordutara garraio furgoneta bat agertu den. Txoriekin hunkitu den bikotea ere gurekin dator eta gidariarekin hizketan joan dira aipaturiko txoriei buruz bidaia osoan zehar.

Ordu erdi batean iritsi gara *Glenorchy* herrixkara. Bertan, bungalow txiki bat alokatu dugu gaua pasatzeko: dutxa bat, afari eder bat eta ohean lo goxoa, hurrengo egunerako pilak kargatu beharra dago eta!

■ 2. Zatia: *Routeburn Track*. Ibilaldi mundial ofiziala

Ibilbide hau *Great Walk* bezala dago katalogatua, horrek esan nahi duen guztiarekin. Goizean, furgonetan pista bat jarraiturik iritsi gara abiapuntura. Hasiera hasieratik da

nabaria aurreko ibilbidearekin duen aldea. Bidea eroso egiteko bitartekoak dira hemen nagusi: ibaiak igarotzeko zubixkak, komunak bidean, askozaz jende gehiago, aterpetxe handi eta erabat ekipatuak, batzuk publikoak eta besteak pribatuak... Hemen negozioa dago!

Routeburn-a 32 km-ko ibilbide bat da, eta hiru egunetan egiteko dago prestatua, baina bi etapatan erraz egin daiteke lehen bi etapak batuz gero. Sasoi onean egonda, egun bakarrean ere egiten du jendeak. Guk bi egunetan egiteko asmoa dugu, presaka ibiltzea ere ez da komeni, hemen gozatzeko asko dago eta.

Aurreko egunetako entrenamendua eta atzoko deskantsuari esker, gorputzaldi ederrarekin abiatu gara gorantz, baso ederretan murgildurik. Lainotuta hasi dugu eguna eta eguerdi aldera hasi da eguzkia lainoak bidaltzen. Altuera hartu ahala, soilduz doa lurra eta basoa amaitzen den puntuan aurkitu dugu lehen aterpetxe multzoa: publikoa eta pribatua. Publikoa esatean, gobernuak gestionatutakoa dela esan nahi du, ez doakoa, ederki ordaindu behar baita hemen lo egiteko. Hala ere, oso txukun eta erosoak direla esan beharra dago. Guk hamaiketako egin eta gorantz jarraitu dugu, Pirinioetako goi lurrak oroitzen dizkiguten paisaietan zehar, laku ederrez inguratutik.

Ibilbideko puntu altuena den *Harris* lepora (1255 m) iristean, aukera dago, ordu eta erdiko joan etorrian, *Conical Hill* izeneko tontor bat egiteko. Denboraz eta sasoz ondo goaz eta, motxilak mendi-lepoan utzita, erdi korrika abiatu gara gorantz, 20 kg gutxiagorekin arin-arin. Ez gara damutu aukera honetaz, benetan ikusgarria tontorretik gozatzen den ikusmira: parean, mendikate ederra zintzilikaturiko glaziarrekin. Mendi hauen atzean daukagun itsasoa ere agertzen da bazter batean, fiordo ederrean barneratuz, artean, zuhaitzez jositako *Hollyford* ibar berde-berdea dugularik. Itsasoa eta horrelako paisaia alpetarrak batera ikusteak magia berezia ematen dio lekuari. Paisaiari begira, bakoitza bere pentsamenduetan murgiltzeko leku aproposa da. Oraindik, ordea, bide luzea dugu kanpalekura eta, askotan bezala, behar baino argazki gehiago aterata, beherantz abiatu gara. Lepora itzultzean, motxilak gogo txarrez berriz bizkarrean hartu eta aurrera segitu dugu. Tontorretik ikusten genuen *Hollyford* ibarra goitik jarraituz goaz, altuera galdu gabe. Parean, beste mendikate bat dugu, noizean behin begirada bat bota eta indarberritzeko.



■ Conical Hill aurrean dugula Harris lepora inguratzen

Denera, 20 km eta zazpi ordu baino gehixeago eginda iritsi gara, teoriarik, bigarren etaparen amaiera den laku ingurura. Hemen ere bi aterpetxe daude aukeran, publikoa eta pribatua, baita kanpaleku txiki bat ere, bederatzi kanpin jartzeko prestatua. *Sandfly*-en konpainiarekin, baina gustura egon gara lakuan oinak sartuta eta kakahuete batzuk jaten, hotzak akanpalekura itzularazi gaituen arte. Kanpalekua ongi dago: kanpina jartzeko belar artifizial moduko lurra, estalpea, ura, mahaia, arraska eta komunak. Guarda igaro da erreserba-tiketak jasotzera. Bertan geunden guztiok tiketa genuenez, jakin-minez geratu gara ea zer gertatuko litzatekeen erreserbarik gabe azalduz gero. Afari goxoa prestatu, gozatu eta lotara, zertxobait irakurri ondoren.

Hurrengo egunean, goizean goiz mugitu eta, behe-lainoa lagun, beheantzi abiatu gara: 11 km ditugu aurretik, gehiena basotik. Erraz eta gozatuz egin ditugu, hiru orduetan, eta amaierara eguerdi partean iritsi gara. Eguraldi bikaina gaurkoan ere, zortekoak gara, txoko euritsu honetan bost egun on segidan egokituta!

Aurreko egunetan baino jende gehiago topatu dugu ibilaldi famatu honetan, baina ez ikaragarri. Azken finean, erregulazioek mugatzen dute mendizale kopurua.

■ 3. Zatia. Milford Sound. Turismo masiboarentzat prestatutako txoko ederra

Amaiera puntutik igarotzen da *Milford Sound* fiordo famatura doan bidea. Autobusak geldialdia egiten du gu gauden tokian, baina hasi bezala amaitu nahian, behatza luzatu dugu. Kontua da, bide hau ia eskusiboki turistek erabiltzen dutela –fiordoetara doa eta ez du irteerarik-. Ondorioz, aurretik egindako saioetan oinarrituta, enpirikoki baieztatzen ari garen teorema bete da berriro ere:

1. teorema: *Autostop egiten jartzean, errepide horretatik zenbat eta turista gehiago ibili, orduan eta denbora gehiago igaroko da hartzten zaituzten arte.*

Nahiz eta trafiko dezente dabilen, ederki kostatu zaigu norbaitek hartzea. Azkenean, bertako emakume jator batek hartu gaitu. Gida lanetan ibili den senarraren bila doa. Kontu kontari eta ikaragarriko harrarteetatik nola hala aurrera egiten duen bidea jarraituta, iritsi gara azkenean

itsasertzera. Zaila da sinestea hau itsasertz bat denik. Nahiz eta eskusiboki turismorako prestatutako egon, horrek esan nahi duen guztiarekin, txoko ikaragarria da: ia 1700 metroko mendigunea altxatzen da zuzenean itsasotik, paisaia magiko eta konparaezina sortuz.

Ezin izan diogu tentazioari eutsi eta turismo zentrotik irteten diren barkuetako baterako sarrera erosi dugu. Ia bi orduko nabigazio itzulia egingo dugu: itsaso zabaleraino irten eta buelta fiordoan zehar. Gure aurrekonturako garesti xamarra da baina, mereziko duelakoan, hor goaz barkuko kubiertan paisaiaz gozatuz. Zenbat mila argazki aterako ote dira egunero leku honetan? Guk ere saioa egin dugu kamerarekin. Ikaragarria da benetan: harrizko paretak erraldoien artetik doa itsasontzia, ur-jauziak itsasoan hausten dira zuzenean, foka batzuk eguzkia hartzen ari dira harrien gainean... Benetan merezi du kruzero txiki honek.

Gure bidaia amaiturik, 400 km-tik gora dauzkagu, orain, *Queenstown* abiapuntura itzultzeko. Izan ere, mendi bidez bost egunetan egin duguna autoz egiteko, itzuli handia egin behar da. Aipaturiko teoremaren jakitun, determinazio osoz jarri gara bide bazterrean, orain ere, *Sandfly*-en konpainiarekin. Gurekin batera barkuan ibili direnak badoaz autoan irteera bide bakarretik. Eta gure aurretik pasatzean, ez ikusiarena egiten dute edo, okerrago dena, irribarre faltsuz begiratzen digute. Baina gelditu inor ez. Azkenean, basozain bat geratu da, baina bertan bizi da. Azken barku bidaia egin direla esan ditu eta jada ez dela apenas autorik pasatuko. Gaur igarotzeko badugula kanpin bat gertu eta bihar goizean saiatzeko, errazagoa izango baita.

Bidaiatzeko era asko daude. Dena programatu daiteke etxetik atera aurretik, normalean nahi baino denbora gutxiago edukita, oporraldian, ahal den leku eta ekintza gehien egiteko. Gauza ezberdin asko ikusi eta egiten dira, baina arriskua dago egindakoaz gozatu ere ez egiteko: argazkia atera, etxera itzultutakoan bertan egon zarela gogoratzeke, eta segi aurrera hurrengo argazkiaren bila. Ez da gustuko dudun bidaiatzeko era, presa eta estresa ez direlako bidelagun egokiak bidaia batean baina, batez ere, dena aurreikusita eramanez gero, bidaia baten funtsa den abentura eta esperientzia berri eta bereziak bizitzeko aukerari ateak ixten dizkiozulako.

Bidaiatzerakoan, ateak eta leihoak erabat irekita eraman behar dira eta datorrenari sartzen utzi. Arriskatu egin behar da, planak intuizioaren arabera aldatu. Informaturik egotea

gauza bat da, eta gida liburuari botere absolutua emanik, zure bidaia berak esandakoaren arabera antolatzea guztiz beste bat. Utzi bertako haize korranteak zugar sar daitezzen eta mugituz haiekin arabera. Horren harira, beste teorema bat aplikatu daiteke, enpirikoki baieztatua hau ere:

2. teorema: *Bidaia zertarako inprobisazioaren edo patuaren esku jartzen zarenean, gauzak ongi iriteteko aukera handiagoa izaten da, zauden herrialdearen "garapen ekonomikoa" txikiagoa den heinean.*

Eta gauden herrialde honetako "garapen ekonomikoa" munduko altuenen artean dago. Beraz, *Sandfly*-en artean, ilunabarrean, auto erdi hutsak bata bestearen atzetik nola igarotzen ziren ikusita, gaurkoz etsi eta kanpinera joatea erabaki dugu. Inprobisatuz bidaia zertarako hautua eginez gero, garbi eduki behar da gauzak ondo irten daitezkeen bezala, gaizki ere irten daitezkeela, baina gaizki ateratze horrek berak norabide berriak hartzeko aukerak irekitzen ditu. Umorea galdu gabe, beraz, aukera bakarra zen aurrez prestatutako pasta afaldu eta lotara.

■ Pirinioak oroitzen dizkiguten paisaiak Harris lepo inguruan.

Hurrengo egunean, goizean goiz autostop egiten hasi eta zortirik ez dugu izan lehen saioan. Azkenean, bikote bidaiari gazte batek hartu gaitu eta erdi bidean dagoen herri bateraino eramango gaituela esanda abiatu gara. Neska kanadarra da eta mutila japoniarra, eta gustura joan gara hizketan bidaia osoan. Japoniarra musikaria da eta euskaldunak garelako esandakoan, interesa agertu du. Badaki hizkuntza eta kultura berezia dugula. Musikaren alorrera bideratu da elkarrizketa eta euskal musika tradizionalari buruz galdetu digu. Azkenean, autoko musika ekipoa Tapia eta Leturiaren piezak entzunez joan gara. Leku gutxi dago atzealdean, gitarra eta maleta artean, bestela dantzan ere hasiko ginen.

Erdibidean, gure bideak banatzen ziren herrira iristear gaudela, aurrera jarraitzea erabaki dute *Queenstown*-eraino, gu goazen herriraino, hain justu. Hauek ere inprobisaziolari atek irekita dabilta bidaia zertarako, badakite horrela ibilita suerta daitezkeela momentu bereziak: astebete lehenago irten garen herrira, kanadar eta japoniar baten konpainian trikitia entzunez iritea, adibidez. Bost orduko bidaia eskertzeko, zerbeza batzuetara gonbidatu ditugu. Agian, trikitia dantzatzeko amaituko dugu denok batera goizaldean...

Aotearoa edo hodei zuri erraldoiaren lurraldea

MAORIEK –zabalduek dagoen teoriaren arabera bertara iritsi ziren lehen gizakiek–, honela izendatzen dituzte irlak. 1250 eta 1300. urteen artean iritsi omen ziren kanoetan Polinesiarren irletatik eta bertan geratu ziren, *maori* izena hartu duen kultura garatuaz. Polinesiarren hodei multzoak ikusten omen zituzten ortzimugan eta horregatik abiatu omen ziren bila, bertan lur berri bat egongo zelakoan. Gero azaldu ziren europar kolonoak, XVII. eta, batez ere, XVIII. mende amaieratik aurrera, haien "zibilizazioa" ekarri.

Zeelanda Berriak 268021 km²-ko azalera du. Ideia bat egiteko, Iberiar penintsularen erdia, gutxi gorabehera. Biztanle kopurua, aldiz, 4,3 milioikoa da. Giza dentsitate txiki irla da, beraz. Gizakia iritsi baino lehen, lurraldearen % 80a basoa zen eta bertan zeuden ugaztun lurraldeak saguzarrak ziren. Harraparik ez izateak bertako hegazti batzuek hegaltzeko eragin zuen, hala nola, Kiwi famatuak eta gaur egun desagertuta dagoen Moak ere –ostrukaren antzekoa, Maoriek ehizatuta desagerrarazi zuten arte, lurreko hegazti handien izandakoa–. 80 milioi urtetan izan duen isolamendua dela eta, bertako animalia eta landare ugari endemikoak dira eta gizakiak ekarritako kanpoko animalia eta landareen ondorioz, dezente desagertu dira. Gaur egun, sarrerako aduanan, ohiko kontrol ez gain, bio-kontrol bat ere igaro behar da. Gure kasuan, mendiko zapatilen zola erakustea nahikoa izan zen, baina kanpin edo antzekoak eramanez gero, garbi-garbia eramatea hobe.

Sandfly-a, inork nahi ez duen konpainiako animalia

SANDFLY-A (hondarretako eulia) eltxo txiki bat da eta ezagutzeko aukera baduzu, azalean sufrituko duzu ondorioa. Batez ere, hegoaldeko irlan aurkitzen da, mendebaldeko kostaldean gehienbat. Ibai inguruetan eta mendietan pilatzen dira bereziki, baina 1500 metrotik gora bakean uzten zaituzte.

Giza arnas bidez detektatzen dute biktimak. Oinez zabiltzenean, ez die denborarik ematen zuzen lokalizatzeke, baina geratzen zaren momentuan, eraso berehalakoa eta erabatekoa da azal zatiren bat bistan baduzu. Hozka egitean, azkura handia ematen du eta, hazkatuz gero, egun batzuetan luzatuko zaizu azkura. Gainera, tropelean erasotzen dute eta babes gabe aurkitzen bazaituzte, dozenaka hozka izango dituzu erremediorik gabe. Bertakoak, aldiz, lasai ibiltzen dira animaliatxoei kasu askorik egin gabe. Ez da azal gogorra dutelako. Diotenaren arabera, milaren bat hozka jasotzen ondoren, antigorputzak sortzen hasten da gorputza eta hozkak min txiki bat besterik ez du sortzen orduan aurrera. Hortaz, mendian ibiltzeko asmotan joanez gero, ezinbestekoa da intsektuen aurkako lozio egoki bat. □